



# 10

# mesanotxean

**Gaztematikak duen lekua  
Gazteriaren Euskal Legearen aurrean**

*"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.*

*Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.*

**Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean**  
**Haur eta gazteria politiken monografikoa 2010eko negua**

**10**  
**mesanotxean**

# mesanotxean 10

**Izenburua:** Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean

**Egileak:**

**Gazte Faktoria:** Joxe Jimenez

**Mesanotxean Laborategia:** Isabel Babace, Edorta Bergua, Lourdes Cabezón, Maialen Aranguren, Josean Castaño, Nagore Garcia, Urko Imaz, Arantza Martiarena, Nagore Narbaiza, Onditz Leizaola, Izaskun Ropero, Maria Solana, Maite Telleria, Xabier Ximenez eta Teresa Zinkunegi

**Bilduma:** Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

**Bildumaren kordinazioa:** Edorta Bergua eta Joxe Jimenez

**Diseinua eta maketazioa:** Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

**Hizkuntz aholkularitza:** Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**Argitaraldia:** 2010eko negua

**mesanotxean**  
**10**  
2010eko negua

**Gaztematikak duen lekua**  
**Gazteriaren Euskal Legearen aurrean**

**Aurkibidea**

**Oinarrizko dokumentua:**

**Gaztematikak duen lekua**

**Gazteriaren Euskal Legearen aurrean**

orrialde 6/21

**Proposamenen dokumentua:**

**Irizpideak eta ekintza ildoak**

orrialde 22/29

**Tresnak**

**Gaiari buruzko gehiago jakiteko...**

orrialde 30/32

# Hitzaurrea

Ikasturte honen hasieran, Gaztematika Foro Teknikoan, Mesanotxean laborategia izenez bataiatu duguna bultzatzea erabaki genuen. Tokiko eta Lurraldeko gazte teknikariz osaturiko lantaldea, Gazte Faktoria erakundeko teknikariek dinamizatzen dutena. Haurrei eta gazteriari buruzko politikak biltzen dituzten Mesanotxean monografikoak sortzeko eta ekoizteko prozesuan lankidetzan aritzea da bere egiteko nagusia.

Talde honek, lehen urrats gisa, laborategiaren lehenengo saioa egin zuen, Mesanotxean jorratu beharreko gai interesgarriak zehazteko eta 2010/11 ikasturtean garatu beharreko lau gaiak erabakitzeko. Saio horretan hiru hilabeteen behin gai bat jorratzea erabaki zen: udazkenean, herritartasun aktiboaren sustapena; neguan, Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen proposamenaren aurrean; udaberrian, Gaztematikarentzako komunikazio metodoak eta tresnak; udan, bai aurrez aurre bai esparru birtualean elkartzeko modu berriak.

Behin 2010eko udazkenaren amaiera aldera “mesanotxean 09. Herritartasun aktiboa eraikitzen” monografikoa argitaratuta, hausnarketa prozesu bat jarri genuen abian **Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean** izenburupean. Oinarrizko dokumentu bezala, 2010eko azaroan aurkeztutako Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroa erabili genuen. Otsailaren 24an egindako laborategian, lantaldeak hainbat ondorio eta proposamen aztertu zituen Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroan jasotako edukiei buruzko iritzia emateko asmoz.

Ondoren, Gazte Faktoriako teknikariek dokumentua osatu dute aurkeztutako irizpideekin eta markatutako ekintza-ildoekin. Mesanotxean zirriborroa taldeko partaideei bidaliko zaie; oniritzia eman ostean, argitaratzeko prest egongo da. Prozesu honen guztiaren emaitza une honetan irakurtzen ari zarena da: *Mesanotxean – haurrei eta gazteriari buruzko politiken monografikoaren hamargarren zenbakia*.

# Oinarrizko dokumentua:

**Gaztematikak duen lekua  
Gazteriaren Euskal Legearen aurrean**



## Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean

Gai hau jorrazteko bi laborategi egitea aurreikusi genuen: lehenengoa, Gazteriaren Euskal Legearen indar-guneak eta ahuleziak aztertzeke, Gaztematikaren ikuspegitik; eta bigarrena, Araba eta Bizkaiko gazteria teknikarien ikuspuntua Gaztematikaren inguruan ezagutzeko. Azkenean, bi monografiko kaleratzea erabaki dugu: lehenengoa “*Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean*” izenburukoa, eta bigarrena, “*Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia*” izenburupean argitaratuko duguna.

Joan den otsailaren 24an, “Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean” aukeratutako gaiaren laborategia egin zen. Laborategi honek, Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren edukia sakon aztertzea, eta Gaztematikatik Gazteriaren Euskal Legearen zirriborrora eramangarriak izan daitezkeen proposamenak adostea zuen helburu nagusia.

Monografiko hau jorrazteko, hasiera batean eztabaidatzeko bost eremu nagusi hautatu genituen: 1. Xedea, helburua, gazte politikaren definizioak eta printzipioak, 2. Gazte politika garatzeko tresnak eta neurriak, 3. Gazteria sustatzeko tresnak eta neurriak, 4. Zeharkako gazte politika sustatzeko tresnak eta neurriak eta 5. Gazteen partaidetza eta ekimen soziala.

Ondoren, indar-guneak eta ahuleziak identifikatu genituen, eta amaitzeko Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroarentzat proposamen egokiak adosten saiatu ginen.

Laborategi lanetan, Gipuzkoako 4 udal teknikarik- Bergara, Elgoibar, Hondarribia eta Zarautz- eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Ataleko teknikariek parte hartu dute. *Gazte Faktoria Berritze-gunea* da “*Mesanotxean 10*” zenbakiaren laborategiko edukiak prestatzeaz eta dinamizazioa gauzatzeaz arduratu izan dena; Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

### Monografiko honetarako helburu hauek zehaztu ditugu:

1. Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren edukia sakon aztertzea.
2. Gazteriaren Euskal Legearen indar-guneak eta ahuleziak identifikatzea.
3. Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroak dituen elementu interesgarriak Gaztematikaren ibilbidea zehazteko kontuan hartzea.
4. Gaztematikatik Gazteriaren Euskal Legearen zirriborrora eramangarriak izan daitezkeen proposamenak adostea.

## Monografikoaren prozesu metodologikoa

Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroak lantzeko, azpimarratutako kopia bat (eztabaidarako puntu interesgarrienak markatuz) prestatu genuen, tresna gisa gaia jorratzeko. Dokumentuaren bertsio hori lagungarria izan zitekeelakoan sortu genuen. Laborategian eztabaidatzeko bost eremu hautatu genituen.

### ZIRIBORROAREN HAUTATUTAKO 5 EREMU

**1. XEDEA, HELBURUA, GAZTE POLITIKAREN DEFINIZIOAK ETA PRINTZIPIOAK:** Xedea, hartzaileak, gazteria politikaren definizioak, Gazteriaren arloan euskal herri-administrazioen jarduketa gidatu eta bideratuko luketen printzipio gidariak (gazteen egoeraren arreta integrala, zeharkakotasuna eta lurraldetasuna), eta orokorrak (aukera-berdintasuna, unibertsaltasuna, gazte-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa... ) azaltzen dira.

**2. GAZTE POLITIKA GARATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK:** Gazteriaren Euskal Sistemaren definizioa, Gazteriaren Euskal Sistemaren egitura, Gazteriaren Euskal Sistemaren jardun-arloak, Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa eta gazteria politiken arloko profesionalak jasotzen dituen atalak.

**3. GAZTERIA SUSTATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK:** Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak eta ekipamenduak, titulartasun publikoko zerbitzu eta ekipamenduen homologazioa, titulartasun pribatuko zerbitzu eta ekipamenduen baimena, gazteentzako jarduerak eta programak, gazte-prestakuntzaren inguruko titulazioak ematea eta homologatzea...

**4. ZEHARKAKO GAZTE POLITIKA SUSTATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK:** Arloko arau eta planen eragina, gazte-plan orokorrak, gazteen emantzipazioa eta herritar-izatea sustatzeko esku-hartze ildoak, gazteria politikaren plangintza eta ebaluazioa erakunde bakoitzean, urteko programazio eta ebaluazioa.

#### 5. GAZTEEN PARTAIDETZA ETA EKIMEN SOZIALA

**5.1. GAZTEEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO NEURRIAK:** Partaidetza sustatzea, gazteen partaidetzarako egituren funtzionamendua, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera, gazteen eta herri-administrazioen arteko solaskidetza ...

**5.2. EKIMEN SOZIALA, GAZTEEN ESPARRUKO BOLUNTARIO LANA ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA:** Ekimen sozialarekin egindako itunak, gazteen esparruko boluntario-lana, gazteen esparruko boluntario-lana sustatzea, nazioarteko lankidetza ...

## Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu zirriborroa<sup>1</sup>

### 1. XEDEA, HELBURUA, GAZTE POLITIKAREN DEFINIZIOAK ETA PRINTZIOAK:

#### 1. artikulua.– Xedea eta helburua.

- 1.– Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gazte-politika garatzeko arau-eta eskumen-esparrua ezartzea, gazteriaren euskal sistema bat arautu eta antolatuta.
- 2.– Lege honen helburua da gazteek herritar gisa dituzten eskubideez baliatzeko babes eta erraztasunak ematea; gazteek gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, iraunkor eta kulturalan aktiboki parte har dezatela sustatzea; eta gazteen autonomia eta emantzipazioa posible egingo duten baldintzak sortaraztea.

#### 2. artikulua.– Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, horrela ulertu behar dira ondoko kontzeptuak:

- a) *Gazte-politika*: gazteek beren bizitzen esparru guztietan dituzten premiei arreta ematen dieten eragileen esku-hartze guztiak, bai eta haurren eta nerabeen arreta ere, astialdiaren erabilerari eta sustapenari dagokienez. Gazte-politikak bi esparru hartzen ditu barne: gaztetasunaren sustapena eta zeharkako gazte-politika.
  - *Gaztetasunaren sustapena*: berriaz haurrei eta gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza. Eskaintza horren xedea gazteen garapen sozial eta kulturala izango da, bai indibidualki bai talde gisa, nagusiki gazteen ekimena eta sormena, mugikortasuna, informazioaren, aholkularitzaren eta heziketa ez formalaren eskuera, parte-hartzean oinarritutako aisia eta ondasunen eta zerbitzuen eskuera bultzatuta.
  - *Zeharkako gazte-politika*: herri-administrazioetako sailek eta bestelako erakundeek eta gizarte-eragileek gazteen autonomia eta emantzipazioa erraztera bideratzen dituzten esku-hartzeak.
- b) *Emantzipazioa*: gazteak osotasunez eta aukera-berdintasunez gizarteratzea lortzea da, beren bizi-proiektua autonomiaz eraikitzeko eta herritar gisa dituzten eskubide guztiak baliatzeko aukera izan dezaten.
- c) *Gazteak*: 12 eta 30 urte bitarteko adina –biak barne– duten pertsonak. Gainera, lege hau adin txikiago pertsona guztiei aplikatuko zaie, beren astialdia baliatzeari dagokionez eta sustapenari dagokionez. Hala ere, programa eta jarduketak jakin batzuetan –beren izaera edo helburuak direla-eta– gehienezko beste adin muga batzuk erabil daitezke, baina horiek ezin izango dute, inola ere, lege honetan jasota dauden printzipio eta bermeen kalterako izan.
- d) *Gazteen partaidetza*: gazteei beren inguruan, harremanetan, pertsonalki zein kolektibo gisa garatzeko aukeretan eta, zuzenean zein zeharka, beren bizi-proiektuetan –kolektibo diren aldetik– eragina izan dezaketan inguruabarren gainean erabakitzeko eta horietan guztietan esku hartzeko aukera ematen dien prozesu, ekintza eta jarrera oro.

#### 3. artikulua.– Aplikazio-eremua.

- 1.– Lege hau euskal herri-administrazio guztiei –erkidego, foru- eta udal- administrazioei–, zuzenbide publikoak araututako autonomia-erkidegoko ente instituzionalei –erakunde autonomiadun ize-nekoei–, zuzenbide pribatuko ente publikoei, sozietate publikoei, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioei, berezko nortasun juridikoz hornitutako partzuergoei eta Gazteriaren Euskal Sistemaren baitan euskal herri-administrazioekin elkarlanean jardungo duten erakunde publiko eta pribatuei aplikatuko zaie.
- 2.– Era berean, Gazteriaren Euskal Sistemaren parte hartzen ez duten erakunde pribatuei honako alderdi hauek arautzen dituzten xedapenak aplikatuko zaizkie:
  - a) Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak;
  - b) Jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen erregistroa eta ikuskatzea, aplikatu dakizkiekeen eskakizunak –materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak– betetzen direla bermatzeko;

1. Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritza, Kultura, Gazteria eta Kirol Saila. Eusko Jaurlaritza. *Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu 3. Zirriborroa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2010-11-09. 43

- c) Arau-hausteen eta zehapenen araubidea;
  - d) Gazteriaren Euskal Sistemari sartuta ez dagoen ekimen sozialak berariaz haurrei, nerabeei eta gazteei zuzentzen dizkien jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak sustatzea eta publikoki laguntzea.
- 3.– Lege honen ondorioetarako, honako hau da euskal herri-administrazioa:
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala;
  - b) Foru-administrazioa, bere erakunde autonomiadunak eta hari lotuta edo haren mendean dauden ente publikoak;
  - c) Toki-administrazioa, bere erakunde autonomiadunak eta hari lotuta edo haren mendean dauden ente publikoak.
- 4.– Halaber, lege hau Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateetan eta sektore pribatuan ere aplikatu behar da, testu honetan zehar ezartzen den moduan.
- 5.– Erakunde pribatuak, baldin euskal herri-administrazioetako batekin kontratuak edo hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-administrazio horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira, kontratua edo hitzarmena gauzatu bitartean edo laguntza edo dirulaguntzaren xede den jarduera burutu bitartean, ondoko printzipioak aplikatu beharko dituzte: aukera-berdintasuna, aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzea, gazte ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa eta rola eta estereotipoak desagerraraztea.

#### **4. artikulua.– Printzipio gidariak.**

Honako hauek dira gazte-politikaren printzipio gidariak:

- a) Gazteen egoeraren arreta integrala, gazteak gizarte, politika, ekonomia, ingurumen eta kultura esparruetan txertatzea bultzatzeko neurriak zehazterakoan gizarte osoaren eta, bereziki, euskal herri-administrazioen eta gizarte-eragileen inplikazio gisa ulertu behar dena.
- b) Zeharkakotasuna, euskal herri-administrazioetako sailek aurrera eramandako lerro eta neurrien inguruko orientazio eta koordinazio gisa ulertuko dena, hau da, biztanle talde jakin batzuetan espezializatuta dauden sailen eta jarduera sektore jakin batzuetan oinarrituta dauden arteko koordinazioa eta orientazioa.
- c) Lurraldetasuna, gazteriaren arloko esku-hartzeak planifikatu, egikaritu eta ebaluatzean lurralde bakoitzaren errealitatearen ikuspuntua txertatzea dela ulertuko dena.

#### **5. artikulua.– Printzipio orokorrak.**

Gazteriaren arloan euskal herri-administrazioen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak ondokoak dira:

- a) Aukera-berdintasuna. Aukera-berdintasuna gazte guztiek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, modu eraginkorren eta berdintasunez baliatzen dituztela bermatuko duten neurri egokien multzo gisa ulertuko da, bai eta aukera-berdintasuna bermatzeko egokiak diren neurri guztiak aplikatzea ere, baliabide eta onura soziokulturalak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzetan ez ezik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan ere.
- b) Unibertsaltasuna eta aniztasuna nahiz desberdintasuna errespetatzea. Beharrezkoak diren neurri guztiak abiarazi beharko dira gazteen emantzipaziorako prozesuan desberdintasunak eta aniztasuna errespetatu daitezen bai gazteen kolektiboaren euren baitan zein beste biztanle kolektiboekiko. Hartara, gazte guztiak izango dira gazte-politikaren hartzaileak, inolako bereizkeriarik gabe, arraza, sexua, hizkuntza, ezgaitasuna, sexu-joera, erlijioa, politikari edo beste edozeri buruzko iritzia, jatorri etnikoa, maila ekonomikoa, jaioterria edo beste edozein egoera pertsonal nahiz sozial dela-eta.
- c) Gazte-ikuspegia txertatzea. Gazte-ikuspegia txertatuko da euskal herri-administrazioetako politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeke eta gazteen emantzipazioa sustatzeko helburu orokorra ezarriko baitute. Gazte-ikuspegiaren integrazioa gazteen egoera, baldintza, jomuga eta premia desberdinak modu sistematikoan kon-

tuari hartzea, eta, horretarako, horiei lotutako politika eta ekintza guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea dela ulertuko da.

- d) Ekintza positiboa. Gazteen emantzipazio erreal eta eraginkorra lortzea sustatze aldera, bizitzaren hainbat esparrutan adinaren ondorioz gertatzen diren izatezko desberdintasunak ezabatu edo murriztera bideratutako berariazko eta aldi baterako neurriak hartzea da ekintza positiboa. Era berean, ekintza positiboaren printzipioa aplikatuko da diskriminazio-egoera edo baldintzetan dauden gazteek pairatzen dituzten desberdintasunak murrizteko. Lege honen ondorioetarako, ez dira adinaren ondoriozko bereizkeria kontsideratuko justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, gazteei tratamendu desberdina ematea badakarte ere. Neurri horien artean ekintza positiboan oinarritzen direnak sartu behar dira.
- e) Rolak eta estereotipoak desagerraraztea. Adinaren arabera gizartean dauden rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea sustatuko da, bai eta gazteen artean, edozein egoera pertsonal edo sozial dela-eta, desberdintasun-egoerak eta diskriminazioa sortarazten edo bultzatzen dituztenak ere.
- f) Elkarlana eta koordinazioa. Euskal herri-administrazioak gazte-politikak garatzean elkarlanean arituko dira, beren jarduketak koordinatuta, egiten diren esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezzen eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat etor daitezzen. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz kanpoko beste instituzio eta erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatuko da, bereziki ekimen sozialarekikoa.
- g) Erantzukizun publikoa. Gazteen autonomia eta emantzipazioa bermatzeko beharrezkoa den neurri oro sustatuko da, bereziki gazte-politiken garapena eta gazteenganako arreta. Era berean, gazteek lege honetan eta geroko garapenetan arautzen diren laguntzak, prestazioak, jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskura izango dituztela bermatuko da.
- h) Plangintza eta ebaluazioa. Antolamendu-esparru egokitu eta egonkorra ezarriko da gazte-gaie-tarako, aurrera eramango diren ekintza eta planteamendu guztietan koherentzia, eraginkortasuna, jarraikortasuna, baliabideen optimizazioa eta etengabeko hobekuntza bermatze aldera.
- i) Hurbiltasuna. Berariaz gazteei zuzenduta dauden jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak nagusiki toki-mailan eskaini behar dira, hau da, deszentralizazioa eta herritarrarekiko gertutasuna garrantzitsuak.
- j) Gazteen partaidetza demokratikoa. Gazteek gizartearen eraikuntzan osotasunez eta aktiboki parte hartzeko duten eskubidea bermatuko da. Horretarako, gazteen eta euskal herri-administrazioen arteko solaskidetza eta elkarlan-guneak sortu eta sendotuko dira, elkarteak eta gazteen ekimenak sustatuko eta partaidetzaren aldeko kultura bultzatuko da, baita elkarteetatik kanpoko gazteen artean ere. Era berean, gazteek parte hartuko dute gazteentzako politika eta baliabideak taxutu eta abiarazteko garaian, horien diseinuak gazteen eskari eta igurikapenetara egokitzeko.
- k) Balioen sustapena. Gazteek balio demokratikoak gara ditzaten sustatuko da. Balio demokratikoen garapena bizikidetza, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna, iraunkortasuna eta bakearen eta giza eskubideen defentsa bultzatzera bideratutako programa eta ekintzen sustapen gisa ulertu behar da.
- l) Informazioa. Gazteek eragiten dieten politika eta jarduketak publikoei buruzko informazio osoa etengabe eskuratzeko bideak erraztuko dira.
- m) Kalitatea, berrikuntza eta ikaskuntza soziala. Gutxieneko kalitate-estandarrak bermatuko dira, autonomia-mailan gutxieneko baldintzak –materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak– araututa. Era berean, estandarrak hobetzea eta, gazte-politikak garatzeko orduan, kalitatera bideratutako kudeaketa sustatuko da. Gainera, gazte-politikak eraikitzeke oinarrietan berrikuntza iraunkorra, ikaskuntza soziala, esperimentazioa eta negoziazioa sartuko dira.
- n) Euskararen erabileraren normalizazioa. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ikasi eta erabiltzea bermatuko da, bai eta gazteen artean euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko, bizitzaren esparru guztietan.
- o) Kulturartekotasuna. Euskadiko gazteek Euskal Autonomia Erkidegoko eta kanpoko errealitate kulturalak ezagutzeko ahalbidetuko duten ekintzak eta programak bultzatuko dira, bai eta geurea

kanpoan ezagutzera ematea ahalbidetuko dutenak ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ez ezik, beste hizkuntza batzuk ikastea sustatuko da, hizkuntzak baitira hainbat herrialde eta kulturatako gazteen artean komunikatzeko oinarritzko tresnak.

## 2. GAZTE POLITIKA GARATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK:

### **10. artikulua.– Gazteriaren Euskal Sistemaren definizioa.**

- 1.– Gazteriaren Euskal Sistema erantzukizun publikoko eta gizarte-partaidetzako jarduketa eta egituren multzo artikulatu eta egonkorra da, zeharkako esku-hartzeek eta berariaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduek osatua, honako helburu hauek lortze aldera:
  - a) Gazteen premiak antzematea;
  - b) Gazteek herritar izate osoa eskuratzea;
  - c) Gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzea;
  - e) Gazteen bizi-kalitatea hobetzea;
  - f) Haurrak, nerabeak eta gazteak sozialki eta kulturalki garatzea, bai norbanako gisa bai talde gisa;
  - f) Haurtasuna eta gaztetasuna sustatzea.

#### 2.– Hartzaileak.

Lege honen ondorioetarako, Gazteriaren Euskal Sistemaren eskaintza zuzenaren hartzaileak gazteak dira, lege honetako 2. artikuluan definituta dauden moduan. Laguntza-zerbitzuen hartzaileak nagusiki gazteekin –profesionalki edo ez– lan egiten duten pertsonak, gazteriaren arloko erantzule politikoak eta gazteen elkarteetako kideak dira.

### **11. artikulua.– Gazteriaren Euskal Sistemaren egitura.**

- 1.– Gazteriaren Euskal Sistemaren barruko zeharkako gazte-politikak eta gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak toki-, foru- eta erkidego-mailan egituratuko dira.
- 2.– Gazteriaren Euskal Sistema osatzen duten zeharkako gazte-politikak eta gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu guztiak –titulartasun publiko nahiz titulartasun pribatu itundukoak izanik–, Euskadiko Gazteriaren Arloko Erakunde arteko Koordinazio Organoaren bitartez koordinatuko dira, sistemaren artikulazioa eraginkorra izan dadila eta sistema kohesionatuta egon dadila bermatzeko eta, erantzukizun publikoaren aldetik, bere batasuna bermatzeko.
- 3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ordezkaturako du Gazteriaren Euskal Sistema, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.
- 4.– Gazteriaren Euskal Sistemaren jarduketak zuzenean edo zeharka gazteei bideratuta dauden eta antzekoak edo osagarriak diren bestelako sistema eta politika publikoei dagozkien jarduketekin koordinaturik egon beharko dira.

### **12. artikulua.– Gazteriaren Euskal Sistemaren jardun-arloak.**

- 1.– Eskaintza zuzena:
  - a) Informazioa, dokumentazioa, orientazioa eta laguntza.
  - b) Aisia hezitzailea eta heziketa ez formala.
  - c) Adierazpen- eta partaidetza-bideak.
  - d) Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntza.
  - e) Mugikortasuna eta ostatua.
- 2.– Eragile eta erakunde publiko zein pribatuentzako laguntza:
  - a) Gazte-politikaren sustapena eta koordinazioa.
  - b) Azterlanak eta dokumentazioa.
  - c) Teknikarien eta bestelako profesionalen eta eragileen prestakuntza.

- d) Aholkularitza.
- e) Baliabideen transferentzia.

### **13. artikulua.– Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa.**

- 1.– Lege honetako 2. artikuluan jasota dauden hartzaileei zuzendutako jarduketak zehazten dituen tresna da Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa. Gazteriaren arloan eskumenak dituzten euskal herri-administrazioek bermatu beharko dute horien guztiorien eskaintza, arau bidez garatuko den moduan:
- 2.– Arau bidez garatuko dira:
  - a) Eskainiko diren zerbitzuen tipologia, bai beren-beregi, bai erabilera anitzeko zerbitzuen bitartez. Horretarako, aintzat hartuko dira honako bizi-zikloak: haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora. Era berean, kontuan hartuko da aurreko artikuluan adierazi diren Gazteriaren Euskal Sistemaren jardun-arloak.
  - b) Prestazio-mota bakoitzaren identifikazio-datuak eta prestazio-mota bakoitzak bete beharko dituen gutxienezko baldintzak arautzea.
  - c) Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko lanbide-kualifikazio egokiak arautzea.

### **14. artikulua.– Gazte-politiken arloko profesionalak.**

- 1.– Gazte-politiken arloko langileen lan ordaindu edo ordaindu gabearen bitartez eta gazteen alde lan egiten duten gainerako langileen lanaren bitartez egikaritzen dira gazte-politikak, lege honi eta lege hau garatuko duen gainerako araei jarraiki.
- 2.– Gazte-politiken arloko langileek eta gazteen alde lan egiten duten gainerako langileek berariaz gazte jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eta zeharkako gazte-politiken ikerketan, diseinuan, zuzendaritzan, aplikazioan, laguntzan edo ebaluazioan dihardute, lege honetan definitzen den gazte-politikaren esparruan.
- 3.– Gazte-politiken arloko langileek eta gazteen alde lan egiten duten gainerako langileek gazteriaren arloan prestakuntza egokia izango dutela bermatuko dute, hau da, nahikoa ezagutza teoriko eta praktikoa izango dutela, arau bidez garatuko den moduan.
- 4.– Gazte-politiken arloko langileek eta gazteen alde lan egiten duten gainerako langileen eginkizun zehatzak arau bidez zehaztuko dira.

## **3. GAZTERIA SUSTATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK:**

### **15. artikulua.– Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak eta ekipamenduak.**

- 1.– Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak honako hauek dira: aisialdiko zerbitzuak; prestakuntza-, sustapen- eta orientazio-zerbitzuak; informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak; eta berariaz gazteei zuzenduta dagoen beste edozein ere.
- 2.– Gazte-ekipamendua gazteei jarduerak edo zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturez eta baliabideez horniturik dagoen espazioa da.
- 3.– Lege honen mendeko gazte-ekipamendu guztiek lege honetan eta legea garatzeko arauetan xedatzen dena bete beharko dute, bai eta osasunari, elikadurari, segurtasunari, ingurumenari, irisgarritasunari eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzko araudi orokorra eta aplikatu daitezkeen beste edozein arloko legeria ere.
- 4.– Arau bidez ezarriko da gazte-ekipamenduen mota bakoitzak zer nolako oinarrizko baldintzak bete behar dituen halakotzat hartua izateko. Edonola ere, oinarrizko baldintza hauetan barne hartuko dira larrialdi-plana edukitzea, erantzukizun zibileko aseguruaren kontratatzea eta zerbitzuen karta edukitzea. Zerbitzuen kartan, gutxienez, erabilzaileen eskubideak jasoko dira, eskaintutako zerbitzuei dagokienez.
- 5.– Berariaz gazteentzat diren zerbitzu eta ekipamenduak taxutzerakoan, emakume eta gizon gazteek dituzten premia desberdinak eta bazterkeria eta/edo desberdintasun egoeran dauden gazteen eskariak aintzat hartuko dira, eta bazterkeria eta desberdintasuna ezabatzen lagunduko da.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio gazteentzako ekipamenduen arloko titulazioak ematea, prestakuntza mailetak bakoitzean. Titulazio horiek jarduera-sektore honetako eginkizun jakin batzuk betetzeko exijituko dira, arau bidez zehaztuko den moduan.

**16. artikulua.– Titulartasun publikoko zerbitzu eta ekipamenduen homologazioa.**

- 1.– Titulartasun publikoko gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak sortzeko, dagokion arloko arau-diaz gain, lege honetan ezarritako baldintzak eta eskakizunak bete behar dira, prestazioen kalitateari eta bermeari dagokienez, arau bidez garatuko den moduan.
- 2.– Ekipamendu edo zerbitzu publiko orok, lege honetan eta geroko arau-garapenetan jasota dauden baldintzak betetzen dituela ziurtagiri bidez frogatuta dagokion homologazioa eskuratu eta gero, Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean izena eman beharko du.

**17. artikulua.– Titulartasun pribatuko zerbitzu eta ekipamenduen baimena.**

- 1.– Lege honetan eta geroko garapenetan biltzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten zerbitzu eta ekipamendu pribatuetan gutxieneko kalitate-maila bermatzearen aplika daitezkeen arloko baimenez gain, aurretiazko baimena eduki beharko dute zerbitzu eta ekipamenduok, funtzionamenduan hasteko eta hasierako araubidearekiko egin daitezkeen aldatetak burutzeko, betiere arau bidez ezartzen den moduan.
- 2.– Baimena emateko prozedura arau bidez garatuko da, baina betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoaren menpe egongo da. Administrazio-isiltasuna egonez gero, negatiboa dela ulertuko da.
- 3.– Ekipamendu edo zerbitzu pribatu orok, dagokion baimena eskuratu eta gero, lege honetan eta geroko garapenetan arautzen den Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean izena eman beharko du.

**18. artikulua.– Gazteei zuzendutako jarduerak eta programak.**

- 1.– Hauek izango dira gutxieneko baldintzak gazteentzako jarduerak burutu ahal izateko, gutxienez:
  - a) Gradu eta maila egokiak dituzten langileak edukitzea –jardueraren partaide kopuruaren proportzioan–, bai eta jarduera burutzeko baliabide material zehatzak edukitzea ere.
  - b) Jarduera bakoitzaren premietara egokitutako segurtasun- eta larrialdi-plana edukitzea.
  - c) Erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.
  - d) Kanpoko jarduerak higiene, osasun, ingurumen eta hezkuntza aldetik egokiak diren baldintzetan burutuko direla bermatzea.
  - e) Kanpoko jarduerak indarrean dagoen legeriak baimendutako eremuetan burutuko direla bermatzea edo, eremu pribatuetan egitekotan, lursailaren jabe den pertsona edo erakundearen berriazko baimenaren jabe direla bermatzea.
- 2.– Gazteen segurtasunerako arriskua ekar dezaketen aisialdiko jarduerak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek administrazioaren baimena eduki beharko dute, arau bidez zehazten den moduan. Nolanahi ere, aurreko puntuan jasota dauden baldintzez gain, aisialdi arloko unibertsitate nahiz lanbide tituludunen kopuru jakin bat eduki beharko dute gutxienez –partaide kopuruaren arabera–, eta jardueraren partaideen segurtasuna bermatuko dute.
- 3.– Adin txikikoek gazteentzako aisialdiko jardueretan parte hartuko badute guraso edo senideen laguntzarik gabe, beti izan beharko dute guraso edo tutoreen baimena, arau bidez zehazten den moduan.
- 4.– 18 urtetik beherako 6 gazte baino gehiagok parte hartzen duten kanpamentu, oporretako gunek, udaleku, kolonia ireki, auzolandegi, martxa ibiltari eta antzekoak, baldin helburua heziketa edo aisialdia bada, familiarterakoak ez badira eta jarraiko hiru egun baino luzeagoak badira, administrazioari jakinarazi beharko zaizkio jarduera hasi baino gutxienez 30 eguneko aurrerapenarekin, erregelamendu bidez arautzen den moduan.
- 5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteen aisialdiko jardueri dagozkien titulazioak emango ditu, arau bidez zehazten diren gradu eta mailekin, eta gutxienez artikulua honetan xedatzen diren muga barruan exijitu ahal izango dira.



**19. artikulua.– Gazte-prestakuntzaren inguruko titulazioak ematea eta homologatzea.**

- 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean gazteriaren arloko eskumena duen saila da gazte-prestakuntzaren inguruko titulazioak emateko eta beste autonomia-erkidegoetakoekin homologatu edo baliozkotzeko eskumena duen organoa.
- 2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean gazteriaren arloko eskumena duen sailak heziketa ez formalaren esparruko titulazio hauek eman ahal izango ditu gutxienez: aisialdiko hezitzaileen prestakuntza, aisialdiko jarduerak, gazte-informazioa eta gazteentzako instalazioak.
- 3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gazteriaren Euskal Erakundeak hala eskatuta, arau bidez zehazten diren ikastaroak eta espezialitateak irakatsi eta gazte-heziketaren arloko jarduerak burutzen dituzten eskolak aintzatesteko gutxieneko baldintzak ezarriko ditu.
- 4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gazteriaren Euskal Erakundearen bitartez, beste autonomia-erkidego batzuekin hitzarmenak sinatzea sustatuko du, aisialdiaren eta gazte-prestakuntzaren arloko titulazioak elkarri aintzatesteko.

**20. artikulua.– Gazteentzako abantaila-motak.**

- 1.– Gazteriaren Euskal Erakundeak, abantaila jakin batzuk –ondasunak, programak eta zerbitzuak eskuratzearekin erlazionatuak– gazteen artean sustatze aldera, pertsona horiei zuzendutako txartelak eta bestelako tresnak garatu eta bultzatuko ditu kultura-, kirol-, olgeta-, kontsumo- eta garraio-zerbitzuak eta antzekoak gazteen eskura ipintzeko, erregelamenduz arautzen den moduan.
- 2.– Gazteentzako txartelak emateak berekin ekar dezake erabiltzaileek kasu bakoitzean ezartzen den prestazio ekonomikoa ordaindu behar izatea.
- 3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gazteriaren Euskal Erakundearen bitartez, ordezkari-lanak bere gain hartuko ditu gazteentzako abantailen txartelak eta bestelako tresnak sustatzen dituzten erakundeen aurrean, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai hortik kanpo. Era berean, egoki diren formula juridikoak ezarri ahal izango ditu erakunde publiko zein pribatuekin, txartel eta tresna horien kudeaketa eta sustapena modu eraginkorrean gauzatzeko.

**4. ZEHARKAKO GAZTE-POLITIKA SUSTATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK****21. artikulua.– Xedapen orokorrak.**

- 1.– Gazteengan eragin zuzena duten arauak, planak, programak eta politika publikoak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk prestatu eta aplikatzean, euskal herri-administrazioek modu aktiboan izango dute kontuan gazteen autonomia eta emantzipazioa lortzearen helburua.
- 2.– Artikulu honetako lehenengo atalean xedatutakoa betetzeko, euskal herri-administrazioen mende edo horiei lotuta dauden sail, erakunde autonomo edo ente publikoek lege honetan ezarritakoari jarraitu behar diote. Nolanahi ere, foru- eta toki-erakundeek, beren eskumenak baliatuz eta beren arauetan dauden berezitasun formal eta materialak aplikatuz, artikulutan ezarritakoa erakundeok dauzkaten antolakuntza eta eginkizun beharretara egokitu ahal izango dute.
- 3.– Lege honi jarraiki, gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko neurriak ezartzean, kontuan hartu behar da lege honetan jasota dauden printzipio orokorretan adierazitako faktoreek duten eragina.

**22. artikulua.– Arloko arau eta planen eragina.**

- 1.– Gazteengan eragin zuzena duen eta Jaurlaritzaren Kontseiluan onartu behar den izaera orokorreko xedapen bat edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren plan bat egitean, hori sustatzen duen administrazio-organismoak aztertu egin beharko ditu xedapen edo planak gazteen autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko helburu orokorrean izango dituen eragin positibo ala negatiboak. Azterketa hori dagokion justifikazio- edo azalpen-memoriari erantsiko zaio.
- 2.– Memoria Gazteriaren Euskal Erakundeari igorriko zaio xedapena edo plana onartu aurretik, jaso eta gehienez ere 30 egun baliodunen epean derrigorrezko txosten ez-loteslea eman dezan. Txos-

ten horretan xedapenak edo planak lege honetan jasota dauden printzipio orokorrekiko eta gazte-plan orokorrekiko duen egokitzapen maila adieraziko da.

- 3.– Xedapenaren edo planaren proiektuan, gazteek bizi duten egoeran neurriok izan dezaketen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeko eta gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko neurriak sartu beharko dira.
- 4.– Era berean, xedapena edo plana sustatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren administrazio organoak, gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko helburua lortzearren, adierazleak ezarri behar ditu, aurreko paragrafoetan aipatzen diren neurriak zenbateraino betetzen diren eta beren eraginkortasun-maila zenbaterainokoa den ebaluatu ahal izateko. Xedapena edo plana sustatzen duen administrazio-organok, ebaluazioa amaitu ondoren, Gazteriaren Euskal Erakundeari igorriko dio, jakitun egon dadin.

### **23. artikulua.– Gazte-plan orokorrak.**

Gazteriaren Euskal Erakundeak euskal herri-administrazioek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduketa gidatuko duten esku-hartze lerro eta gidalerroak koordinatuta eta globalki bilduko dituzten plan orokorrak landuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak onar ditzan. Gero bere jardunaren berri eman beharko dio Eusko Legebiltzarrari.

### **24. artikulua.– Gazteen emantzipazioa eta herritar-izatea sustatzeko esku-hartze ildoak.**

Euskal herri-administrazioetako gazte-plan orokor bakoitzaren ekintza-arlo bakoitzean esku-hartze lerro hauek zehaztuko dira gutxienez, dagokion epealdirako antzematen diren eskari eta premiak kontuan harturik:

a) Gazteak, enplegua eta diru-sarreraren bermea.

- 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteen laneratze-prozesua bultzatzera eta errazago egitera eta gazteentzat kalitatezko enplegua sustatzera bideratutako planak landuko ditu, eta berriazko programak eta ekintza zehatzak burutuko ditu. Hartara, gazteen lan-eskubideen bermea eta besteren konturako kontratazioen lan-egonkortasuna sendotuko dira eta gazteen enpresa-ekimena sustatuko da.
- 2.– Era berean, diru-sarreraren bermeari buruzko politika gazteen premiei egokitzen zaiela egiaztatuko du.
- 3.– Etengabeko prestakuntza eta bizitza osoko ikaskuntza sustatuko dira.

b) Gazteak eta hezkuntza.

- 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, gazteen aldeko hezkuntza- eta prestakuntza-politikak planifikatzeko eta egikaritzeko garaian, hezkuntza formal nahiz ez formalaren aldeko laguntza-ekintzak koordinatuko ditu. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ikaskuntza eta erabilera bultzatuko du, bai eta beste hizkuntza batzuen ere, gure erkidegoko gazteen artean hizkuntza anitzeko hezkuntza lortze aldera.
- 2.– Arreta berezia emango zaio bakea, elkartasuna, erantzukizuna, aukera-berdintasuna, bizi-ohitura osasungarriak eta iraunkortasuna sustatzeko eta jokaera xenofobo, arrazistak eta bestelako edozein diskriminazio mota –arrazaren, sexuaren, sexu-orientazioaren edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialen ondoriozkoa– prebenitzeko balio-hezkuntzari. Hartara, gazteengan elkartasuna eta bestelakoa denarekiko errespetua sustatuko dira.

c) Gazteak eta etxebizitza.

- 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteen autonomia pertsonalerako prozesuak errazago bilakatu behar ditu, gazteek etxebizitza duina errazago eskuratzeko politika aktiboa garatuta. Horretarako, bakoitzak, bere etxebizitza-politiken baitan, gazteek dituzten zailtasun bereziak –ekonomikoak, nagusiki– arintzeko neurriak abiaraziko ditu, hartara merkatu libreak eskaintzen dituenak baino baldintza hobeak lortuta.
- 2.– Lege honen 1. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gazteek etxebizitza errazago eskuratzeko programa eta planei dagokienez, gazteak etxebizitza-plan eta programetan ezartzen diren adin-tarteetan kokatuta dauden pertsonak izango dira.

## d) Gazteak eta gizarte-zerbitzuak.

Gizarte-zerbitzuen politikak gazteen premiei egokitzen zaizkiela eta gazteek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eskueran dutela bermatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak. Hartara, sistema horrek gazte guztien autonomia pertsonalari eta komunitate-integrazioari ematen dion laguntza sendotuko da.

## e) Gazteak eta kultura.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beharrezkoak diren neurri zehatzak hartuko ditu gazteek kultura aukera-berdintasunez izan dezaten eskura eta kulturaren esparruan hedakuntza, sorkuntza eta partaidetza sustatuko du gazteen artean.

## f) Gazteak eta kirola.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteek kirola aukera-berdintasunez egitea sustatuko du, beste herri-administrazio, erakunde publiko zein pribatu eta gazte erakundeekin elkarlanean, gazteek ohitura osasungarriak hartzeko sentsibilizazio-lanen lagungarri.

## g) Gazteak eta aisialdia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteei zuzendutako aisialdiko jardueren eskaintzaren garrantzia eta kalitatea areagotzeko neurri zehatzak hartuko ditu. Hori dela eta, aisialdiaren aprobetxamendua nortasunaren funtsezko osagarria dela ulertu behar da, eta, bere erabilera, hezkuntzako eta prestakuntzako tresna.

## h) Gazteak, osasuna eta prebentzioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren gazte-politikek gazteen osasuna eta gazteek aztura osasungarriak hartzea sustatuko dute. Horretarako, gazteei zuzendutako berriarazko programa, proiektu edo kanpainak abiaraziko dira. Arreta berezia emango zaie ondoko gai hauei: osasun mental eta emozionala, sexu-hezkuntza, droga-mendetasunen prebentzioa eta tratamendua, bestelako adikzioak, elikadura-nahasteak, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak eta nahi ez diren haurdunaldiak eta trafiko istripuen prebentzioa.

## i) Gazteak eta ingurumena.

- 1.- Euskal herri-administrazioek gazteei eta ingurumenari buruz garatzen dituzten politiken eta administrazio-jarduketan helburua gazteen artean natura-ingurunea babesteko eta erantzukizunez gozatzeko heziketa eta sentsibilizazioa zabaltzea izango da. Hartara, natura-baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea lortuko da, belaunaldien arteko elkartasuna sustatuko da eta gazteak ingurumenarekin engeiatzea erdietsiko.
- 2.- Era berean, gazteek tokian-tokian edo eskualdean iraunkortasunaren alde antolatzen diren planetan, organoetan edo partaidetza-foroetan parte hartzea sustatuko da.

## j) Gazteak eta kontsumoa.

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteen prestakuntza sustatuko du, informazio-kanpainen edo berriarazko programen bitartez, kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak ezagutu eta arduraz, ikuspegi kritikoz eta elkartasunez balia ditzaten.
- 2.- Era berean, kontsumo arrazionalaren kultura eta gazteek kontsumo iraunkorraren eta bidezko merkataritzaren sareetan parte hartzea sustatuko da.

## k) Gazteak eta informazioaren gizartea.

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteek informazio- eta komunikazio-teknologiak eskura izatea sustatuko du. Arreta berezia emango zaio baliabide teknologikoak baldintza berdinetan eskuragarri egoteari.
- 2.- Era berean, gazteek giza eskubideen, bakearen, askatasunaren, berdintasunaren, tolerantziaren, elkartasunaren eta iraunkortasunaren defentsa sustatzen duten Interneteko sare sozialetan parte hartzea bultzatuko da.
- 3.- Halaber, gazteen ekimena, sormena eta informazio- eta komunikazio-teknologiaren sormenezko erabilera berritzailea sustatuko da, gazteak informazioaren gizartearen benetako partaideak izan daitezen.

l) Gazteak eta boluntario-lana.

Gazteengan boluntario-lana sustatuko da, beren intereseko gaiei dagokienez.

m) Gazteak eta landa eta itsas ingurunea. Lurraldeen arteko oreka.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteei landa-inguruneetan gelditu eta finkatzen lagunduko dieten neurriak planifikatu eta garatuko ditu. Horretarako, arreta berezia eskainiko zaio nekazari, abeltzain, akuikulturako hazle eta arrantzale gazteak sustatzeari eta horiei gizarte, ekonomia, kultura eta prestakuntza baliabideak hirietako gazteen aukera berdinetan eskuratzeko bermea emateari.

2.– Lege honen 1. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, landa eta itsas ingurune eta lurralde-orekari buruzko programa eta planei dagokienez, landa eta itsas ingurune eta lurralde-orekari buruzko programa eta planetan ezartzen diren adin-tarteetan kokatuta dauden pertsonak izango dira gazteak.

n) Gazteak eta mugikortasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Euskadiko gazteen aukera- berdintasuna bermatuko du, mugikortasuna bultzatuta eta beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetan ikasketak, ikastaroak eta jarduerak burutzeko programak garatuta. Hartara, Euskadiko gazteek aniztasuna eta kultura-aberastasuna ezagutzea sustatuko da; aldi berean, prestakuntza eta laneratzea errazago burutuko dira eta hainbat balio eta giza eskubiderekiko errespetua sustatuko da.

o) Gazteak eta bizikidetzeta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazte-kolektibo guztien integrazioa eta gizarteratzea errazago egitera bideratutako neurri jakinak hartuko ditu.

p) Atzerriko euskal etxeetako gazteak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gazteen egoerari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra garatzen ari den gazteentzako plan eta politikei buruzko informazio eta erreferentzia-guneak atzerriko euskal etxeetan egotea bultzatuko du, hartara atzerriko gazteek informazio zehatz eta gaurkotua izan dezaten.

2.– Era berean, atzerriko euskal etxeetako gazteekin elkarlanean aritzeko eta trukeak egiteko bideak sustatuko dira.

## **25. artikulua.– Gazte-politikaren plangintza eta ebaluazioa erakunde bakoitzean.**

Aurreko artikuluan aipatutako plan orokorreko esku-hartze lerroak eta gidalerroak garatzeko, dagokion legealdirako gazteriaren arloko plangintza egokia bermatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko bakoitzak. Azkenik, ebaluatu egingo du, arauz ezarriko diren irizpideei jarraiki.

## **26. artikulua.– Urteko programazio eta ebaluazioa.**

1.– Erkidego, foru- eta toki-administrazioetako sail bakoitzak –toki-administrazioen kasuan, banaka nahiz mankomunitateetan elkartuta–, urtero, bere jarduketa-programak landuko ditu, eta programatzen duen neurri bakoitza egikaritzera bideratuko dituen diru-baliabideak zehaztuko ditu, aurreko artikuluetan jasotzen den plangintza garatzeko. Aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu eta gero, sail bakoitzak jarduketa-programa horiek ebaluatu egingo ditu, arauz ezarriko diren irizpideei jarraiki.

2.– Gainera, Gazteriaren Euskal Erakundeak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailetatik ekitaldi horretan egikarituko diren ekintzen programa osatzeko eta aurreikusitako diru-baliabideak zein diren jakiteko beharrezkoak diren datuak bilduko ditu, gero Jaurlaritzaren Kontseiluari ekintzen programa aurkezteko, horrek bere onespina eman dezan. Ekintzen programaren betetze-maila dagokion ekitaldia bukatutakoan ebaluatuko da.

## 5. GAZTEEN PARTAIDETZA ETA EKIMEN SOZIALA

### 5.1. Gazteen partaidetza sustatzeko neurriak:

#### **27. artikulua.– Partaidetza sustatzea.**

- 1.– Euskal herri-administrazioek gazteek parte hartzea –adierarik zabalenean– sustatu behar dute, gazte-politikei momentuko egoera sozial errealari dagokionez koherentzia emate aldera, instituzioen eta gazteen arteko elkarriketa sustatze aldera, gazteen garapen indibidual eta soziala eta gizartearen berrikuntza bultzatze aldera, eta, azkenik, gazteak eta beren gizartea elkar elikatze aldera.
- 2.– Gazte-politiken plangintza, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesu irekiak martxan jarriko direla bermatuko dute gazteriaren arloan eskumena duten administrazioek. Prozesu ireki horietan gazteen iritziak –elkarteetakoena zein elkarteetatik kanpokoena– kontuan hartuko dira.
- 3.– Euskal herri-administrazioek, batetik, zuzenean zein zeharka, herritarren partaidetzaren kulturari buruzko heziketa emango diete gazteei; bestetik, parte-hartzean oinarrituriko metodologiei eta parte-hartzea praktikan jartzeko eta dagokion lurralde-eremuko gazteen elkarte eta erakundeekin lanean aritzeko beharrezkoak diren trebetasunez jabetzeari buruzko heziketa emango diete beren langileei.
- 4.– Toki- eta foru-administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra lege horietan jasota dauden partaidetza-prozesuak errazteko beharrezkoak diren baliabideez hornituko dira.

#### **28. artikulua.– Gazteen partaidetzarako egituren funtzionamendua.**

- 1.– Edozein eremutako gazteria-kontseilu edo partaidetzarako egitura edo gune ororen funtzionamenduari dagokionez, erabakiak hartzeko garaian, gazte guztien –emakume zein gizon– eta desberdintasun egoeran dauden gazteen iritziak eta premiak aintzat hartzea sustatuko da.
- 2.– Edozein eremutako gazteria-kontseilu edo partaidetzarako egitura edo gune oro hala entitateen nola elkarteetako nahiz elkarteetatik kanpoko gazteen partaidetza aktiboa sustatzen ahaleginduko da, bereziki teknologia berriak erabilia.
- 3.– Kasu guztietan, gazteen partaidetzarako egitura horien osieran, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua sustatuko da.

#### **29. artikulua.– Informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera.**

- 1.– Kasu guztietan, euskal herri-administrazioek informazio- eta komunikazio-teknologia berriak baliatuko dituzte, gazteen informazioa eta partaidetza ahalik eta gehien areagotzeko.
- 2.– Euskal herri-administrazioek informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea sustatuko dute, honako aukera hauek emango dituzten webguneak sortuta:
  - a) Administrazioarekiko izapideak egin ahal izatea eta horiek ahalik eta gehien erraztea.
  - b) Administrazioaren gardentasuna hobetzea, gazteriaren arloan sortzen den izaera publikoko informazio oro sarean sartuta.
  - c) Sare telematikoen bidez administrazioen arteko harremana bultzatzea, herritarren onurarako.
  - d) Elkartearen sarea herritarren artean ezagutzera ematea.
- 3.– Baliabide teknologikoak orokortzen diren neurrian, herri-administrazioek herritarren sare informatikoak garatuko dituzte, herritarrek, gazte-gaietan, zerbitzuetako erantzuleekin elkarrengaitzeko, eztabaidetan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko.

#### **30. artikulua.– Gazteen eta herri-administrazioen arteko solaskidetza.**

Euskal herri-administrazioek –toki-administrazioek, foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoko administrazioak– gazteei entzun beharko diete gazteriaren arloan eragina duen edozein xedapen orokor onartu aurretik, aipaturiko esparruetako bakoitzean ezarriko den moduan.

**5.2. Ekimen soziala, gazteen esparruko boluntario lana eta nazioarteko lankidetzak:****31. artikulua.– Ekimen sozialarekin egindako itunak.**

- 1.– Herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, elkarlanerako formulak ezar ditzakete, beste batzuen baliabideekin gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko.
- 2.– Gazteriaren arloan jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko beharrezkoa denean euskal herri-administrazioek ekimen sozialarekin itunak egitea, lege honen 3. artikulua 4. atalean xedatutakoa bete beharko dute jarduera, zerbitzu eta ekipamendu horiek eskainiko dituzten entitateek, sektore publikoaren baitako kontratuen legeriak arautzen duenari jarraiki.
- 3.– Lege honetan xedatutakoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gazteriaren Euskal Erakundeak proposatuta, arau bidez finkatuko ditu aurreko ataletan aipatutako zerbitzu eta ekipamenduen eta, hala badagokio, jardueren baimenak eta itunak egiteko bete-kizunak eta oinarrizkoak eta orokorrak diren gutxieneko baldintzak. Edonola ere, zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna izango dira irizpide nagusiak, betiere sektore publikoaren baitako kontratuen legeriak arautzen duenari jarraiki.
- 4.– Dagokion herri-administrazioak, ituna egin aurretik, gazteentzako zerbitzu eta ekipamendu pribatuak baimendu behar ditu, Gazteriaren Euskal Erakundeari aitortu zaizkion ikuskatze-lanei kalterik egin gabe.

**32. artikulua.– Gazteen esparruko boluntario-lana.**

- 1.– Gazteen esparruko boluntario-lana interes orokorreko jardueren multzoa da, hau da, gizartearen, komunitatearen, kulturaren, garapenerako lankidetzaren, ingurumenaren babesaren edo antzeko beste edozein alderditan pertsona fisiko gazteek gizartearen edo pertsonen alde gauzatzeko dituzten jardueren multzoa. Gazteek jarduera horiek eskuzabaltasunez, elkartasunez, borondatez eta askatasunez garatzen dituzte –lan–, funtzionario– edo merkataritza-harremanik, obligazio pertsonalik edo betebeharrak juridikorik eragin gabe–, irabazi asmorik gabeko erakundeen bitartez, programa edo proiektu jakinetan eta trukean ordainsaririk jaso gabe.
- 2.– Gazteek boluntario-jardueretan parte hartzea sustatuko dute euskal herri-administrazioek, bakoitzak dagozkion eskumenen esparruan.
- 3.– Legerian xedatutakoa garatuta, gazteen esparruko boluntario-lana gauzatzeko baldintza eta bete-kizunak ezarri ahal izango dira arau bidez. Araudi horrek boluntario-lan sozialaren esparruan indarrean dagoen legerian xedatutakoa errespetatuko du.

**33. artikulua.– Gazteen esparruko boluntario-lana sustatzea.**

Gazteen esparruko boluntario-lana sustatu eta errazago egite aldera, euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-esparruan diharduela eta bakoitzak bere aurrekontu erabilgarriak baliatuta, ondoko jarduketak sustatuko dituzte, besteak beste:

- a) Boluntarioak dituzten erakundeek dituzten baliabide eta bitartekoen berri ematea elkarri.
- b) Gazteen esparruko boluntario-lan antolatua indartzeko neurriak hartzea.
- c) Dirulaguntzetarako eta boluntario-laneko gazteen erakundeekin elkarlanean aritzeko bestelako deialdiak egitea, gazteen esparruko boluntario-programak eta proiektuak egikaritu eta garatzeko xedearekin.
- d) Gazteen esparruko boluntario-lanari buruzko informazio-kanpainak antolatzea eta horrekin dagoen balioak zabaltzea.
- e) Gazteen esparruko boluntario-lana garatzeko lagungarri izango diren araugintza ekimenak abiaraztea, bereziki lan eta zerga arloetan.
- f) Lege honen aplikazio-eremuaren barruko gazteen erakundeei informazioa, aholkularitza eta laguntza teknikoak eskaintzea.
- g) Gazteen esparruko boluntario-lanari buruzko ikerketak, azterlanak eta argitalpenak burutzea.

- h) Europa eta nazioarte mailako boluntario-proiektuak bultzatzera, lankidetzak sortzeko ekintza berritzaileak laguntzera eta gazteak boluntario-lanaren espirituaz hezi eta prestatzera bideratutako ekimenak sustatzea.
- i) Elkartasunezko jarrerak sustatzea lege honek arautzen dituen jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak egikaritzekoan ekintza boluntarioak garatuta.

**34. artikulua.- Nazioarteko lankidetzak.**

- 1.- Gazteriaren Euskal Erakundeak beste herrialde batzuekiko nazioarteko lankidetzak sustatuko du gazte-gaiei dagokienez, eta premia berezietan arreta berezia eskainiko die, Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziarekin elkarlanean.
- 2.- Gazteriaren Euskal Erakundearen nazioarteko lankidetzako programetan lankidetzaren herrialde hartzaileetako biztanle gazteen sustapena bilatuko dute. Hartara, programen helburuak eta lege honen xedekak koherenteak izango dira.

# Proposamen dokumentua:

**Irizpideak eta ekintza ildoak**



Lan ildo gisa, Gazteriaren Euskal Legearen arlo tematiko bakoitzaren aldekoak eta desadostasunak biltzea proposatu genien partaide guztiei. Honako hau da laborategian parte hartu zutenek Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren indar-gune eta ahuleziak deskribatzeko eskatu zitzaizaien idatzi zuten zerrenda.

## Gazteriaren Euskal Legearen indar-guneak eta ahuleziak

### Indar-guneak

1. Lurralde historikoen homogeneotasuna bultzatzea.
2. Sistemaren erreferenzialtasuna.
3. Legea bera eta sistema jasotzea.
4. Sistema kontzeptua erabiltzen duena.
5. Sustapenari ematen zaion garrantzia.
6. Batzen dituen jarduerak.
7. Markoa ematen du eta egokia guretzat (Gaztematika).
8. Markoa zehaztea eta erreferentzia izatea.
9. Orientabideak eta helburuak egokiak, Gaztematikarekin bat egiten dutenak.
10. Gazteria arloko zerbitzu, ... "guztiak" barneratzen ditu.
11. Jende ezberdinetatik hartutako ekarpenak.

### Ahuleziak

1. Definizio maila baxua.
2. Ekarpenak bermatu al dira?
3. Finantziazioa ez bermatzea.
4. Zehaztasun falta.
5. Orokorregia.
6. Zerbitzuen katalogoan osatzen dituen zerbitzuen tipologia ez azaltzea.
7. Emantzipazioaren kontzeptua=etxetik joatea=baliabideak
8. Zerbitzuen definizio falta.
9. Gazteen ekarpenak zeintzuk dira ez zehaztea.
10. Partaidetzarako tresnak ez daude (Gazteak,Elkarteak ...).
11. Indefinizioa eta zehaztu gabe gauza asko.
12. Sistema aipatzen da, baina ez da nola gauzatuko den azaltzen.
13. Zerbitzuen inguruan zehaztapenik ez, konpromisorik ez.

14. Profesionalen inguruan zehaztapenik ez, konpromisorik ez.
15. Administrazioen arteko eskumenen banaketa eta koordinazioa ez da zehazten.
16. Adina (0-12 urte)
17. Eragile guztien arteko kontsentsua bermatu gabeko zirriborro bat izatea.
18. Ez duela behartzen administrazioari.

Ondoren, aspektu zehatz horien gaineko ikuspuntu kolektiboan sakontzeko erronda bat egin genuen. Jarraian horien sintesia aurkezten dugu. Hain zuzen ere, Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren eztabaidan erabiliko den sintesia.

### IDEIA NAGUSIEN SINTESIA:

## 1. Xedea, helburua, Gazte politikaren definizioak eta printzipioak.

#### Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:

- **Xedea eta helburua.** Legea haurtzaro eta gaztaroko politikak ezartzeko erreferentzia marko baliagarri bezala ulertzea. Baita Legeak nerabe eta gazteak eskubide osoko pertsona gisa aitortzeko lege babesa eskaintzea ere.
- **Gazte politikaren definizioak eta printzipioak.** Definizioak eta helburu orokorrek bat egiten dute hein handi batean Gaztematikan garatutakoekin.
- **Gazte politikaren definizioak eta printzipioak.** Azken urteetan, batik bat gazte planetan, politika integralei sustapen jardueri baino garrantzi handiagoa emateko izan den joerarekin amaitu eta, berriz ere, bi jarduera arlo horien arteko oreka bilatzea.
- **Gazte Politikaren eremu nagusiak.** Jarduera arlo nagusi gisa honakoak identifikatzea: Legearen hartzaile diren pertsonen emantzipazio bidea sustatzea eta horretarako politika integralak erabiltzea.
- **Hartzaileak.** Nerabeak eskubide osoko pertsona gisa hartzea Legean. Baita 12 urtez azpiko haurrak aisialdi hezitzailearen eta haur sustapenaren hartzaile gisa aitortzea ere.

#### Honako puntu hauen gaineko zalantzak ditugu:

- **Zeharkako gazteria politika.** Emantzipazio kontzeptua ezin da etxeko emantzipaziora mugatu; aitzitik, pertsonaren, emozioen, gizartearen, ekonomiaren eta abarren arlo guztietara zabaldu behar da.
- **Hartzaileak.** Nerabezaroa berezko nortasuna duen etapa gisa ez aitortzea sozialki eta psikologikoki.

- **Hartzaileak.** Gaztaroa terminoa 12 eta 30 urte arteko pertsonak deskribatzeko erabiltzeak nahasketa sor dezake bai kontzeptualizazioan (nerabezaroa eta gaztaroa) bai karakterizazioan (baldintza sozial eta pertsonalak).

#### **Honako puntu hauek ez ditugu gustuko:**

- **Hartzaileak.** Bizitzako etapa bakoitzean garatu beharreko jarduera eremuak argi eta garbi ez zehaztea, baita horiei dagozkien adinak zehatz-mehatz ez adieraztea ere. Etengabeko prozesuaren balioa ez aitortzea zerbitzuen eskaintzan (haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa).

## **2. Gazteriaren euskal sistema.**

#### **Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:**

- **Gazteriaren Euskal Sistemaren definizioa.** Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeentzat Gazteriaren Euskal Sistema Publiko bat sortzeko apustua. Horrela Gipuzkoak Gaztematika sistemarekin abiatutako bidea hartzen da.
- **Gazteriaren Euskal Sistemaren jarduera arloak.** Gipuzkoan garatzen diren jarduera arlo guztiak Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroan sartu direla ikustea.
- **Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa.** Proposatutako antolakuntza erreminta: gazteria zerbitzuen katalogoa. Baita honakoak katalogoa sortzerakoan kontuan izan beharreko aldagaitzat hartzea ere: bizitza zikloak (haurtzaroa, nerabezaroa eta gazteria) eta jarduera arloak.

#### **Honako puntu hauen gaineko zalantzak ditugu:**

- **Gazteriaren Euskal Sistemaren jarduera arloak.** Jarduera arlo horiek eskaintzeko orduan erantzukizunak (eskaintza zuzena edo laguntza publikoa edo pribatua) banatzea.
- **Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa.** Hurbileko zerbitzuen diseinuan bizitza zikloen (haurtzaroa, nerabezaroa eta gazteria) benetako aitortza.

#### **Honako puntu hauek ez ditugu gustuko:**

- **Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa.** Tipologia, karakterizazioa, hartzaileak, funtzionamendua, jarduera arloak eta abar ez definitzea eta lurraldeka ezarri behar diren zerbitzu zuzenen gaineko inolako konpromisorik ez hartzea.
- **Gazte-politiken arloko profesionalak.** Profesionalen profilak, maila profesionala, presakuntza, zerbitzuko ratioak eta abar ez zehaztea.
- **Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoa.** Gazteriaren Euskal Sistema Publikoan eta Gazteriako Zerbitzuen Katalogoan ratioak sortzeko adierazleen gaineko proposamenik ez izatea.

### 3. Gazteria sustatzeko tresnak eta neurriak

#### Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:

- **Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak eta ekipamenduak.** Hein handi batean Gaztematikak garatzen dituenekin bat egitea.
- **Titulartasun publikoko zerbitzu eta ekipamenduen homologazioa.** Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorra bezalako bitarteko bat sortzea gazteentzako ekipamendu publikoen kalitatea bermatzeko.

#### Honako puntu hauek ez ditugu gustuko:

- **Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak eta ekipamenduak.** EAeko lurraldeetan eskaini beharreko zerbitzuen tipologia eta ratioak ez zehaztu izana.
- **Berariaz gazteentzat diren zerbitzuak eta ekipamenduak.** Zerbitzu publikoen sarea garatzeko planifikazioaren, konpromisoen, epeen eta finantzazio moduen zehaztasun eza.

### 4. Zeharkako gazteria politika sustatzeko tresnak eta neurriak.

#### Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:

- **Xedapen orokorrak.** Gazteriako unitate administratiboei gazteriako politiketan beste departamentu batzuekin elkarlanean aritzeko lege babesa emateko zirriborroan jasotako asmoa.

#### Honako puntu hauen gaineko zalantzak ditugu:

- **Gazteen emantzipazioa eta herritar-izatea sustatzeko esku-hartze ildoak.** Definizio orokorrak egitea eta ezarritako helburuak esku-hartze ildo bakoitzean ez zehazteak planteamenduaren eraginkortasunaren gainean ditugun zalantzak areagotzen ditu.
- **Arloko arau eta planen eragina.** Gazteriaren Euskal Erakundeak gai bakoitzean jaso beharreko txostenen benetako eraginkortasuna.

#### Honako puntu hauek ez ditugu gustuko:

- **Gazteen emantzipazioa eta herritar-izatea sustatzeko esku-hartze ildoak.** Hain jar-duera arlo zabala zehaztea Gazteriaren Euskal Erakundeari lehentasunezko bete-behar horiek garatzeko beharrezko bitarteko teknikoak nola eman aurreikusi edo azaldu gabe.

- **Urteko programazioa eta ebaluazioa.** Beste behin ere gazte planak jotzea gazteriako politika integralak garatzeko bitarteko nagusi gisa, batik bat orain artean abian jarritako gazte plan bakoitzak izan duen eragin sozialaren benetako ebaluazioa egin gabe dagoenean.

## 5. Gazteen partaidetza eta ekimen soziala

### Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:

- **Partaidetza sustatzea.** Gazteriako politiketan ezarri beharreko prozesuetako ezinbesteko erreminten artean partaidetza kontuan izatea Legeak.
- **Gazteen partaidetzarako egituren funtzionamendua.** Gazteen intereseko eragile guztiak Administrazioarekin komunikazioa izateko solaskide baliagarri gisa aitortzea.

### Honako puntu hauen gaineko zalantzak ditugu:

- **Gazteen partaidetzarako egituren funtzionamendua.** Administrazioa gazteen partaidetza ahalbidetzeko zer-nolako baliabideak eman eta eskaintzeko prest dagoen.
- **Gazteen partaidetzarako egituren funtzionamendua.** Gazteria politiken diseinuan, plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan erabakiguneak partekatzeko benetako asmoa.

## 6. Antolaketa Administrazioa.

### Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:

- **Erakunde arteko koordinazioa.** Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroan azaldutako koordinazio beharra.

### Honako puntu hauek ez ditugu gustuko:

- **Erakunde arteko koordinazioa.** Administrazio eskumenen banaketa eta administrazio mailetan koordinaziorako erakundeen eskumenak ez zehaztea.
- **Erakunde arteko koordinazioa.** Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroa aurkezteko orduan adostasuna izatea bermatua ez izatea.

## **Euskal Legearen zirriborrora eramangarriak izan daitezkeen ideiak eta proposamenak**

### **INDARTZEKO**

1. Gazteriaren Euskal Legeak haurtzaroko eta gaztaroko politikari aplikatuko den hiru lurraldeetan eskain diezaiekeen erreferentzialtasuna aitortzea.
2. Sistema propio gisa (gazteria) aitortpena jasotzeak inguruko beste sistema batzuekin berdintasun egoeran jartzen gaitu eta zeharkako politikak garatzeko laguntza eskaintzen digu.
3. Sustapena gazteriako sistemaren oinarrietako bat bezala onartzeak hiru lurraldeetan garatu beharreko lana homogeneizatzen laguntzen du.
4. Proposatutako gazteria sistema sostengatzen duten balore eta helburuek bat egingiten dute Gaztematikak dituenekin.
5. Administrazio arlo ezberdinen eta askotariko eragileen ideia eta proposamenak jasotzea.
6. Adina haurtzaroko eta gazteriako oinarritzko zerbitzuen arteko jarraipena ahalbidetzeko elementu erabakigarri bezala ulertzea.
7. Legeak haurtzaroaren, nerabezeroaren eta gazteriaren etapak bizi dituzten 0-29 urte arteko pertsonak subjektu bezala aitortu behar ditu.

### **ARGITZEKO**

1. Sistemaren hartzaile nagusiek (nerabeek eta gazteek) egindako ekarpenak zeintzuk izan diren eta horretarako zein bide erabili diren zehaztea.
2. Esku-hartze eremu bakoitzean Legea garatzeko konpromiso eta derrigortasun maila zehaztea.
3. Gazteriaren Euskal Sistemaren eragileak eta bakoitzaren zereginak identifikatzea.
4. Legeak 0 eta 12 urte bitarteko pertsonentzako aurreikusitako aisialdi hezitzaileko zerbitzuak zeintzuk diren zehatz-mehatz espezifikatzea.

**HOBETZEKO**

1. Haurrak, nerabeak eta gazteak Legearen objektu/subjektu bezala hartzea.
2. Legea Haur eta Gazte Sustapenerako Euskal Legea bezala izendatzea.
3. Legean azaldutako emantzipazio kontzeptua berraztertu eta birdefinitzea.
4. Jarduera arlo bakoitzean garatu behar diren zerbitzuen tipologia definitzea.
5. Haurtzaro eta gaztaroko unitate administratiboen ezarpen ratioak zehaztea.
6. Haur eta gazte sustapenerako zerbitzu sarea (tokikoa eta lurralde mailakoa) ezartzeko adierazleak sortzea.
7. Administrazio bakoitzaren (tokikoa, lurralde mailakoa eta erkidego mailakoa) harreman eta eskumen esparrua zein den zehaztea.
8. Sistemako eragileen partaidetzarako bitarteko egonkorrak sortzea, eta sortuko den sistema berriaren plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko mekanismo eta erremintak zehaztea.
9. Gizarte eragileentzat partaidetzarako gune eta bitarteko egonkorrak sortzea sistemaren maila guztietan (hurbiltasuneko zerbitzuak, lurraldekako zerbitzuak eta zerbitzu autonomikoak).
10. Haur eta gazte sustapenerako sistemako profesional izateko beharrezko profila zein den zehazteko iritzia ematea.
11. Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborro proposamena egiterakoan erakundeen artean eta gizarte eragileen artean adostasuna izatea bermatzeko beharra.
12. Haur eta Gazte Sustapenerako Euskal Sistema garatzeko beharrezko bitarteko ekonomiko eta finantzarioak izatea bermatzea.
13. Partaidetza gune bat sortzea gazteen intereseko erakundeek Haur eta Gazte Sustapenerako Euskal Sistemaren plangintza eta ebaluazioan laguntza emateko aukera izan dezaten.
14. Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroa Eusko Jaurlaritzako Gazteria Batzordeari aurkezteko beharrezko gutxienerako eragile kopurua adostea.

# Tresnak

**Gaiari buruzko gehiago jakiteko...**





***Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu 3. Zirriborroa.***

Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritza.  
Kultura, Gazteria eta Kirol Saila. Eusko Jaurlaritza.  
Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2010-11-09. 43  
[http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-legea/es/contenidos/informacion/legea\\_testua/es\\_001/sarrera.html](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-legea/es/contenidos/informacion/legea_testua/es_001/sarrera.html)



***Gaztematika. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenarako Sistema.***

Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia.  
Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.  
Donostia: Gipuzkoako Foru aldundia, 2010. 60



***Nafarroako Gazteriari buruzko Foru Legea, 2011/11.***

Nafarroako Gazteriaren Institutua.  
Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordea.  
Iruña: Nafarroako parlamentua, 2011.  
[http://www.navarra.es/home\\_eu/Temas/Juventud/Informacion/Ley+Foral+de+Juventud/](http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Juventud/Informacion/Ley+Foral+de+Juventud/)



***18/2010 Legea. Valentziako Gazteriaren Legea.***

Institut Valencià de la Joventut. Generalitat Jove.  
Valencia: Generalitat de Valencia, 2010.  
[http://www.docv.gva.es/datos/2010/12/31/pdf/2010\\_14172.pdf](http://www.docv.gva.es/datos/2010/12/31/pdf/2010_14172.pdf)



***33/2010 Legea, Kataluniako Gazteria Politikak.***

Generalitat de Catalunya.  
Barcelona: Generalitat de Catalunya, 2010.  
<https://www.gencat.cat/diari/5731/10273096.htm>  
<https://www.gencat.cat/eadop/imatges/5731/10273096.pdf>



***Haur eta Gazteen Udal Plana***

Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua  
Gizarte ekintza Departamentua.  
Gasteizko Udala.  
Gasteiz: Gasteizko Udala, 2009. 139  
<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/28758.pdf>



## mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.
- 05.** Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak.
- 06.** Gipuzkoako elkarteek Gaztematikari egindako ekarpena.
- 07.** Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko zerbitzuen ebaluaketa.
- 08.** Gipuzkoako gazteria arloko profesionalak.
- 09.** Herritartasun aktiboa eraikitzen!

